

BALORE PROPOSAMENA

Gure balore proposamena hurrengo da:

Ikusi dogun arazoa da LH, DBH, BATX eta gradu desberdinetan ikasgai batzuetan ikasleak arazo handiak dekotela ikasgaia gainditzeko; hau emaitza akademikotan ikusi daiteke. Gaur egun, ohikoena izaten da irakasle partikularretara eta akademietara joatzea. Ikerketek esaten dute ikasleen %44 zerbitzu hauek erabiltzen dituela. Baina, askotan akademia edo irakasle partikularrak topatzea familiei eta beharra daukaten ikasleei zaila egiten zaie: batzuk, bilatzen dabe berriz azaltzea klasean egin dabena, beste batzuek online eskaintza, hizkuntza, klaseak etxean jaso ahal izatea... Beste aldetik, batzuetan ikasleak ez dute ondo konektatzen ikasleekin estudio metodoa dela eta. Honek ekartzen dau notak ez izatea behar edo espero direnak.

Bestalde, klaseak emoteko prest dauden gazteentzat zaila egiten zaie beraien zerbitzua beharra daukaten ikasle eta familien artean jakinaraztea, eta ondorioz diru-sarrerak lortzea.

Nazio Batuen jasangarritasunaren helburuarekin, kalitate oneko hezkuntza eta lan duinarekin bat egiten dogu, ikasketak ahalik eta ondoen izan daitezen eta gazteen artean lan postuak sor daitezen.

Gure proiektua irakasle partikularrak eta akademien aurkikuntza erraztea eta ikasgaien batzuek bestekoa igotzea da. Gainera, lan gehiago sortuz ikasle gazteen artean. Horretarako, app eta web gune bat sortuko dugu, non klase partikularrak eman nahi dituzten pertsonak, (beharreko prestakuntza eta gaitasunekin) beraien zerbitzua aurkeztu ahalko dute: ikasgaia, ordutegia, lekua, maila zehaztu Webgunean edo appean, profila sortu eta gure laguntzarekin, berak eskeintzen dituen klaseetan interesa duten ikasleak kontaktatu ahalko ditu. Laguntza behar duten ikasle eta familiek ere beren profila sortuz irakasle bilaketa eta kontaktua egin ahalko dute. Horrela, errazten dogu ikasle-irakasle kontaktua eta gainera web gune bertan ikusi ahal izango da zein izango zan lan metodoa (bakarka, taldeka, online, presentziala...), ikaslea erabakitzeko zein irakasle mota nahi duen. Gure zerbitzuarekin errezagoa izango da laguntza akademikoa bilatzea eta aurkitzea. Beste aldetik, ikaslea behin irakaslearekin kontaktuan jarrita, euren artean diru akordio batera helduko dira eta bertatik %10 gure projekturako izango da.

Orain arte, ez da egon inor horrelako zerbitzurik eskeini duenik. Gaur egun, badira irakasle batzuen multzoa, non ez duten hain erraz eta eroso jartzen irakasle eta ikasleak behar dituen klaseak jasotzeko metodologia eta modua bilatzen. Gai honetan, gure aplikazioak hobekuntza bat suposatzen du eta besten enpresetatik desberdintzen da.